

Bideojokoen erabilera handitu da Euskadiko gazteen artean, batez ere mutilen artean

Euskadin, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,8k dio egunero edo ia egunero jolasten duela kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokoekin. Beste % 11,9k astean hiru edo lan egunetan jolasten duela dio; beraz, esan dezakegu hamar gaztetik hiruk (% 29,7k, hain zuzen ere) jolastu ohi dutela bideojokoetan.

Beste % 16,0k astean behin edo bitan bakarrik jolasten duela adierazi du eta gainerakoek maiztasun txikiagorekin edo inoiz ez dutela horrelako jokoetan jolasten esan dute.


Bideojokoetan aritzea ohikoagoa da gizon gazteen artean, emakume gazteen artean baino. 20 urtetik beherakoek nagusiagoek baino sarriago jokatzen dute; egia esan, zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta gutxiago jolasten da bideojokoetan.

| Euskadin, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokoekin jolasten duten maiztasuna, sexuaren eta adin-taldearen arabera | | | | | | |
|--|---------|-----------|---------|----------------|----------------|----------------|
| (%) | Guztira | Sexua | | Adin-taldeak | | |
| | | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urtekoak | 20-24 urtekoak | 25-29 urtekoak |
| Egunero edo ia egunero | 17,8 | 9,6 | 25,3 | 19,5 | 18,6 | 15,0 |
| Astean hiru edo lau egunetan | 11,9 | 7,4 | 16,2 | 14,6 | 11,8 | 9,2 |
| Astean behin edo bitan | 16,0 | 13,0 | 18,9 | 19,8 | 15,1 | 12,8 |
| Gutxiagotan | 21,5 | 24,6 | 18,6 | 23,1 | 20,0 | 21,4 |
| Inoiz ez edo ia inoiz ez | 32,8 | 45,4 | 21,0 | 23,0 | 34,5 | 41,6 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2021

Kontuan hartzen baditugu 2021ean kontsolekin edo ordenagailuko edo mugikorreko jokoekin gutxienez astean hiru egunetan jolasten dutenen ehunekoak eta 2016an jasotakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu gizon gazteen artean jolasten dutenen portzentajea hamar puntu igo dela; emakumeen artean, aldiz, ia ez da aldatu. Bestetik, jolastu ohi dutenen ehunekoa gehiago handitu da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, beste adin-taldearen artean baino.

Bideojokoetan jolasteko ohituraren bilakaera (gutxienez astean hiru egunetan) Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia